

PASAIA / Donibaneko liburutegiak giza baliabide eta onura teknikoak eskatu ditu

**Batzordea oso pozik dago azpiegitura berriak izan duen
harrerarekin bi astetan 200 kide egin baitira**

Pasaia. Donibaneko Bibliotekaren Aldeko Batzordeko kideek zenbait eskakizun betetzeko eskatu diote Udalari Itsas Mendi liburutegiak aurrera egin dezan.

Batzordeak adierazi zuenez, "Donibaneko guraso eta hurrek harrera bikaina egin diote liburutegiari. Bi astetan 200 kide egin dira eta umeak horrelako toki goxo batean ipuin kontalariak gustura entzun dituzte". "Baina, bere garaian, edozein liburutegiak aurrera egiteko giza baliabide eta onura teknikoak behar zirela eskatzen indarra egin bagenuen ere, oraintxe bertan gabezi horiekin aurkitzen gara", azaldu zuten.

"Pasaiaiko Udaleko Kultur Ba-tzordean adostutakoa bete gabe dago", esan zuen Bibliotekaren Aldeko Batzordeak.

Konkretuki, bete gabeko puntuak lau direla zehaztu dute: liburutegia hornitzen jarraitzeko asignazio berezia, liburuzaina lanordua osoz egotea, lehengo materiala berrerabiliz bertako atala sortzea eta, azkenik, Absys programa erabiltzen duten ordenagailuak.

Botzordekoek eskakizun hauek aurkeztu zituztenean Udalak "dauden diru zailtasunak gainditzen joango direla" erantzun zien.

Baina Batzordekoek azken Udalbatzarrean hartutako erabaki bat erreparatu zioten: "Batzuen aldeko eta besteen abstentzioa medio, bertako politikarientzako ordenagailuak erosteko erabaki zuten".

"Ez zaigu batere egokia iruditzen. Gure ustetan, herritarren onurako, material informatiko hori Pasaiaiko toki publikoetan (kultur etxea edo liburutegia) kokatu beharko litzateke eta ez gutxi batzuen eskuetan, guztion poltsikoaren kontu", adierazi zuten. >a.m.